

Txisparen ametsa



Bazen behin Ostadar izeneko herrixka bat, oso txikia; harrizko etxeak, ur gardeneko ibaia, eta udan bailara argiztatzeko zuten ekilorez jositako zelai zoragarri bat zituena. Han ekilore asko bizi ziren, baina, guztien artean, bazen bat bere xalotasun eta eskuzabaltasun handiarengatik, eta guztien artean txikiena izateagatik nabarmentzen zena. Txispa zuten izena, eta asko gustatzen zitzaion irakurtzea eta besteekin hitz egitea.

Egunen batean bidaiatzearekin, eta berak gauero lo hartu aurretik irakurtzen zituen abentura liburuetan azaltzen ziren leku zoragarri haiek ezagutzearekin egiten zuten beti amets.

Baina Txispak bazekien hori lortzea ia-ia ezinezkoa zela ekilore batentzat, bere sustraiak lurrari itsatsiak zeudelako. Bera bezalako landare eder bat izateak gauza on asko ditu, baina berak ezin zuten bidaiatu, eta ez zen biziko jaio zen lurretik eta elikatzen zen lurretik atera ezker. Alabaina, berak bazekien guztiok dugula gure baitan zerbait magikoa, irudimena izena duena; hala, sarritan begiak itxi eta kontzentratzen zen, eta Lurreko bazter guztietan barna ibiltzen zen.

Uda hasten zen hurrengo egunean, eta Loreen Festa ospatzen zuten zelaian. Urteko egunik garrantzitsuena eta dibertigarriena zen. Ekilore guztiek euren petaloak ebakitzen zituzten apain-apain egoteko, eta zerbait estreinatzen zuten, zorte ona ekartzen zuela esaten zutelako.

Baina Txispak ez zuten inoiz ezer berririk erosten; nahiago zuten bere itsulapikoko dirua gauza garrantzitsuago batzuetarako gorde. Petaloak ere ez zituen ebakitzen, horrela egunen batean norbait itzal bila etortzen bazen, eskaintzeko aukera izango zuela pentsatzen zuten. Eta musika hagitz gogokoa bazuen ere, tentu handiz dantzatzen zuten, eta horri buruz norbaitek galdetzen zionean honela erantzuten zuten Txispak:

- Beldur naiz, uneren batean, norbait elikatzeko balio duten pipak ez ote zaizkidan eroriko.
- Zeinen eskuzabala zaren Txispa! Beti besteei nola lagundu pentsatzen.
- Esaten zioten denek.



Gaua gainera etorri eta festa amaitutakoan, gaueko iluntasunean eta isiltasunean, hegazti-talde bat ibili zen hegan Ostadar inguruan. Urrutitik zetorren.

Antza denez, haien herrian ez zuen aspaldian euririk egin, landareak lehortuta zeuden, eta ez zeukaten zer janik. Fito zegoen hegaztien artean, bere anaia, aita eta amarekin batera halako bidaia luzea lehen aldiz egiten.

Ordu asko daramatzate hegan, gelditu gabe, eta Fito oso nekatuta dago, gosetuta eta logurez. Hainbestekoa zen bere logura, hegan zihoan bitartean lo hartu zuela, eta hegoak mugitzen jarraitu bazuen ere, poliki-poliki goitik behera erortzen hasi zen. Halako batean, boooooonnn!!! zuhaitz baten adarrekin tupust egin, eta Txisparen oinetara erori zen.

A zer nolako sustoa hartu zuen Txispak Fito gainera etorri zitzaionean!

- Ahhhh! Non nago? Nola iritsi naiz hona? Nor zara zu?


- Lasai lagun -esan zion Txispak-. Ondo al zaude? Minik hartu al duzu?

Fitok min handia zeukan hegoan. Apurtu egin zitzaion erortzerakoan, eta ez zeukan bidaia egiten jarraitzerik.

Baina Fitok bere familia bakarrik zeukan buruan.

- Ez dira konturatu desagertu naizenik, eta ez dira itzuliko uda amaitu arte! Zer egingo dut? Nirekin kezkatuta egongo dira!

- Lasai, Fito. Mezu bat bidaliko diegu hemendik igarotzen den hegaztiren batekin, ondo zaudela jakinaraziz. Gera zaitetz nire etxean; guk zainduko zaitugu, esan zion Txispak.





Fitok bi hilabete zoragarri igaro zituen Ostadarren. Barre egin zuen, jolastu, partekatu, eta, bere familiarekin asko gogoratzen bazen ere, zoriontsu izan zen herrixka hartan.

Baina uda amaitzear zegoen, eta etxera itzultzeko garaia heltzen ari zen. Laster ikusiko zituen Fitok berriro bere familiakoak eta lagunak, baina, horrekin batera, utzi egin beharko zituen leku hura eta hainbeste maitatu zuten pertsonak.

Orduan, ikaragarritzko burutazioa izan zuen. Baina lehenengo Txispari esatea hobe izango zela pentsatu zuen. Ustekabeko galanta izango zen harentzat.

Hurrengo egunean, ehunka hegazti zebiltzan hegan Ostadar inguruan, eta herrian denek gora begiratzen zuten harrituta. Fitoren aitak eta amak euren semetxoa ikusi zuten goitik. Azkenean! Pozarren zeuden berriro besarkatzeko.

Fitoren familiak ez zekien nola eskertu Txispari halako bihotz zabaltasuna, euren semetxoa beraiekin zoriontsu izan zelako, eta hori ez zuten inoiz ahaztuko.

- Oso ondo egon naiz, ama! Nire bizitzako udarik dibertigarriena izan da.

Txispa oso pozik zegoen Fitok berriro bere familia ikusi zuelako, baina triste ere bai, agurtzeko garaia iristear zegoelako eta banandu egin beharko zutelako.

Orduan, Fito hurbildu eta esan zion:

- Txispa, ez zaitez triste egon. Nirekin etorri, eta beti amestu dituzun leku horiek ezagutuko dituzu.
- Baina Fito..., nik ezin dut hemendik mugitu, eta zuk ondo dakizu hori. Ni ekilore bat naiz, eta landareok ez dugu hankarik, sustraiak bakarrik ditugu.
- Baina bidaiatzeko era asko daude, Txispa, eta zuk ongi dakizu hori -esan zion Fitok-.

Zuk baduzu zeure-zeurea den eta denbora honetan ni elikatu nauen zerbait: zure aleak!

- Nire pipak? Eta zer egingo duzu horiekin, Fito? –galdetu zion Txispak.
- Nirekin eramango ditut, eta nire bidaian zeharkatuko ditudan paisaia zoragarrietan han-hemenka askatzen joango naiz. Horietan landareak jaioko dira, eta horrela zure zati bat leku horietan egongo da, eta itzala egingo diete eta janaria emango behar duten guztiei. Era horretan, zure ametsa bete egingo da.

Fitok hegaldiari ekin zion, eta hor hasi zen Txisparen abentura.

Txispa eskuzabala izan zen, bere laguntza eskaini zion behar zuenari, eta beti pentsatu zuen besteengan bere buruan baino lehenago; horregatik, egun batean bere ametsa bete egin zen.

